

# BESTELAKO XEDAPENAK

## LEHENDAKARITZA

### 1961

*EBAZPENA, 2020ko martxoaren 11koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak burutzen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei dirulaguntzak emateko.*

Bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak bultzatzeko laguntzak arautzen dituen apirilaren 24ko 57/2018 Dekretuak 5. artikuluan dio ezen Biktimen eta Giza Eskubideen arloko titularrak urtero egindako ebazpen baten bidez egingo dela laguntza horietarako deialdia. Deialdi hori bi ebazpenen bidez egingo da: bat, erakunde pribatuen proiektuei zuzendua, eta, bestea, udalen eta gainerako toki-entitateen proiektuei zuzendua.

Deialdiaren urteroko ebazpenean, hau guztia zehaztuko da: deialdiaren helburua, dirulaguntzen diru-hornidura, Balorazio Batzordeko kideen izendapena, eskabideak aurkezteko era, eta, hala badagokio, diruz lagundu daitekeen programa edo jarduera bakoitzaren gehienezko zenbatekoa.

Halaber, Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 70/2017 Dekretuaren 20.3 artikuluari jarraikiz, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariak egin behar du bere eskumen arloko dirulaguntzen deialdia.

Deialdi hau Lehendakaritzaren 2020rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan dago jasota, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura finantzatuko da.

Ondorioz, Lehendakaritzaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 70/2017 Dekretuak ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuen proiektuak finantzatzeko dirulaguntzetarako deialdia egitea. Proiektu horiek gure gizartean bizikidetzaren kultura, giza eskubideen errespetua, eta enpatia eta elkartasuna bultzatu behar dituzte. Proiektuak 2020ko urtarrilaren 1etik 2021eko irailaren 1era egin ahalko dira.

Laguntzok ondoren azaltzen diren jarduera-eremuetan sartzen diren programa eta jardueretarako bat egitera zuzendu beharko dira:

##### a) Bizikidetzaren eta giza eskubideak:

1) Partaidetzako, zabalkundeko edo heziketa sozialeko jarduerak, giza duintasunaren, giza eskubideen eta bizikidetzaren adiskidetuaren aldeko konpromisoa sustatzera zuzendutako ekimenak.

2) Edozein biolentzia-mota, terrorismoa edo giza eskubideen urraketarekiko kritiko agertzen den eta horiek guztiak deslegitimizatzen dituen kontzientzia kritikoa sustatzera zuzendutako ekimenak.

3) Iraganeko izandako edozein biolentzia-formaren aurrean gogoeta kritikoa egiteko prozesuak babesten dituzten programak, bai eta gizarteratzeari buruzkoak ere, Europan dagoen justizia errehabilitatiboaren aldeko korrontearen ildoan.

4) Partaidetza sozialeko eta desberdinen arteko elkarrizketa sustatzeko esperientziak, pluralismoa eta topaketa soziala sustatzen dituen bizikidetza normalizatuak dakartzan erronkei erantzunez.

b) Biktimak eta gizartea:

1) Terrorismoaren biktimei laguntzeko ekintzak.

2) Giza eskubideen urraketen biktimei laguntzeko jarduerak, motibazio politikoko biolentziaren testuinguruan.

3) Biktimen eta gizartearen arteko batasuna sustatzen duten programak, bai eta biktimek bizikidetzaren aldeko ekarpena laguntzen ere, haien aurrerapenen partaide bezala.

c) Dibertsitatea eta elkartasuna:

1) Arrazakeriaren, xenofobiaren edo gorroto-delituen prebentzioaren eta dibertsitatearen kudeaketa positiboaren balioak sustatzen dituzten proiektuak.

2) Desberdintasunaren, diskriminazioaren, injustiziaren edo bazterketaren forma kritikoen aurrean elkartasunaren eta inplikazio sozialaren balioak sustatzen dituzten esperientziak.

3) Biolentziaren adierazpen berrien, gerraren eta nazioarteko terrorismoaren aurrean, elkartasun, inplikazio eta mobilizazio sozialeko ekintzak.

2. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Dirulaguntzak entitate hauek eskatu ahalko dituzte:

a) Pertsona juridiko pribatuak, irabazi-asmorik gabeak, legez eratuak, betiere haien helburuak badira, haien estatutu sozialetan aurreikusitakoaren arabera, bizikidetza eta giza eskubideak, eta beren programak edo jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan egiten badituzte.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan helbideratutako biktimen elkarteak edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo helbideratuta daudenak, baldin eta beren elkartekideen artean Euskal Autonomia Erkidegoan izandako ekintza terroristen biktimak badituzte.

3. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Prozedura honen izapide guztiak kontsultatzeko, eskatzeko eta egiteko, bide elektronikoak erabili beharko dituzte erakunde interesdunek.

2.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak, justifikazioak eta gainerako ereduak nola izapidetu jakiteko xehetasunak euskadi.eus-eko egoitza elektronikoa honetan eskuratu daitezke:

<https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2020/erakundeak-giza-eskubideak/y22-izapide/eu>

3.–Eskaeraren osteko izapideak helbide honetan egingo dira: <http://www.euskadi.eus/nire-karpeta>

4. artikulua.– Eskabideak aurkezteko eta formalizatzeko epea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasita.

2.– Eskabideak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira, euskadi.eus-eko egoitza elektronikoa sartuta.

5. artikulua.– Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Eskabidea, erantzukizunpeko adierazpenak barnean dituela, inprimakian egin beharko da, zeina euskadi.eus egoitza elektronikoa baitago eskuragarri.

2.– Eskabide horrekin batera, proiektuaren memoria ere aurkeztuko da, honako informazio honekin:

a) Proiektuaren edo programaren datuak, non hauek zehaztuko baitira: xedea, metodologia, lan-plana, balizko hartzaileak (sexuaren arabera bereziak), lurralde-eremua, egingo diren jardueren egutegia eta genero-ikuspegiari nola helduko zaion. Helburuak lortuko direla eta gastua eraginkorra izango dela bermatzeko ezarriko diren kontrol-bideak ere aipatuko dira.

b) Erakunde eskatzaileak programa edo proiektua gauzatzeko dituen baliabide materialen eta giza baliabideen adierazpena. Horretaz gain, honako hauek ere adierazi beharko dira: alde batetik, erakundeak ba ote duen berdintasunaren alorrean trebatuta dagoen eta ibilbidea duen pertsonarik, eta, bestetik, boluntario gisa jarduten duten pertsonen kopurua. Programan edo proiektuan inolako ordainsaririk gabe parte hartzen dutenak joko dira boluntariorzat.

c) Programa edo proiektua gauzatzeko eragingo duen kostuaren aurrekontua, partidaren arabera banakatua. Bertan, proiektua finantzatzeko gainerako bideak zehaztuko dira, egotekotan.

d) Dirulaguntzaren helburu den programa edo proiekturako eskatutako gainerako laguntzen zerrenda; bertan, zein administrazio publikori edo erakunde publiko edo pribaturi eskatu zaion laguntza zehaztu beharko da, bai eta laguntza horiek ukatu edo eman diren edota oraindik ebatzi gabe dauden eta horien zenbatekoak ere. Horrelakorik ez badago, dirulaguntza jasotzeko aurkeztutako programa edo proiektuetarako ez dela beste inongo laguntzarik eskatu adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da.

e) Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko biktima-elkarteen kasuan, egiaztatu behar dute beren elkartekideen artean Euskal Autonomia Erkidegoan izandako ekintza terroristen biktimak dituztela.

3.– Nolanahi ere, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak erakunde eskatzaileari eskatu ahal izango dio nahi beste dokumentazio eta informazio, eskabidea behar bezala ulertu, ebaluatu eta izapidetzeko.

6. artikulua.– Diru-zuzkidura.

1.– Dirulaguntzen programa honetara bederatziehun mila (900.000) euro bideratu dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan 2020. urterako aurreikusitako partidaren kargura.

2.– Laguntzek bete beharko dute Batzordeak 2013ko abenduaren 18an onartutako 1407/2013 (EE) Erregelamendua, de minimis laguntzei Tratatuen 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzkoa (EBAO, L 352. zk., 2013-12-24koa). Laguntza hauek de minimis motako laguntzat jotzen dira; izan ere, pertsona fisiko edo juridiko jakin bati emandako laguntzaren guztizkoak ez du gaindituko berrehun mila (200.000) euroko kopurua, aurreko bi ekitaldi fiskaletakoa eta aurtengoa batuta. Muga horretatik beherako dirulaguntzek merkataritzari eragiten ez diotela eta lehiakortasuna faltsutzen ez dutela ulertzen da; horren ondorioz, ez dira sartzen Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuen 107.1 artikulua aplikazio-eremuan.

3.– Entitate onuradun bakoitzak, gehienez, hogeita bost mila (25.000) euro jaso ahal izango ditu, eta deialdi honetan jaso ditzakeen laguntzen gehienezko zenbateko osoa ezingo da inolaz ere izan berrogeita hamar mila (50.000) euro baino handiagoa.

## 7. artikulua.– Balorazio Batzordea.

Aurkeztutako eskaerak eta dokumentazioa aztertzeko eta ebaluatzeko, Balorazio Batzorde bat eratuko da. Kide hauek izango ditu:

Batzordeburua:

Laura Sagastizabal Errazu andrea, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako arduraduna.

Batzordekideak:

Iosu Amenabar Sancho jauna, Lehendakartzako Araubide Juridikoko Zuzendaritzako teknikaria.

Alaitz Vives Urbieta andrea, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko (Gogora) teknikaria.

Marian Sánchez Amado andrea, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako teknikaria, aldi berean Batzordearen idazkari-lanak egingo dituena.

## 8. artikulua.– Ordaintzeko modua.

Deialdi honen babesean ematen den dirulaguntza honela ordainduko da:

a) Lehenengo ordainketan, emandako dirulaguntzaren % 75 ordainduko da, dirulaguntza espresuki onartu eta gero, edo ematen dela jakinarazten denetik hamabost eguneko epean, uko-egite espresurik ez bada aurkezten.

b) Bigarren ordainketa 2021ean egingo da. Bertan, emandako dirulaguntzaren erabilera (hurrengo artikuluan zehazten den bezala) Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari justifikatu eta gero egindako likidazioaren ondoriozko zenbatekoa ordainduko da.

## 9. artikulua.– Dirulaguntza justifikatzea.

1.– Dirulaguntzen justifikazioa gehienez hilabeteko epean aurkeztu beharko da, jarduera egindako datatik kontatzen hasita, eta betiere 2021eko urriaren 1a baino lehenago, eta, justifikazio-memoriarekin batera, datu eta agiri hauek jaso beharko ditu:

a) Diruz lagundutako proiektua gauzatzean egindako gastuak justifikatzeko jatorrizko fakturak eta ordainagiriak. Bai fakturak (indarrean dagoen araudian ezarritako baldintza formalak bete behar dituzte) bai ordainagiriak diruz lagundutako proiektu bakoitzaren arabera bereizita aurkeztu behar dira, eta behar bezala ordenatuta eta zenbakituta, eta, horrez gain, ordainagiriaren eta fakturen izen-zerrenda bidali behar da, aipatutako gastua zertarako erabili den azalduta.

b) Eredutik ofizialaren arabeko soldata-ordainagiriaren originalak eta Gizarte Segurantzako kotizazio-agiri ofizialak, kontratatutako lan-kontratuko langileei dagozkien gastuak justifikatzeko.

c) Aldi baterako kolaborazio-gastuen ordainagiriaren originalak. Besteak beste, datu hauek adierazi behar dituzte: jasotzailearen datuak, Nortasun Agiri Nazionala, ordainketaren kontzeptua eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagozkion atxikipena.

d) Sarreren eta gastuen balantzea.

e) Proiektuaren onuradunak zeintzuk izan diren eta proiektua egiten zeintzuek parte hartu duten adierazteko datuak, sexuaren arabera bereizita.

f) Programen, iragarki-kartelen, argazkien eta argitaratutako gainerako material grafiko, idatzi edo soinuzkoen aleak.

2.– Justifikazioak nola izapidetu jakiteko xehetasunak hemen daude eskura: <http://www.euskadi.eus.nire-karpeta>

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren idazkari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Prozedurari buruz ebazpen honetan berariaz arautu gabeko guztiari dagokionez, honako haue-tan xedatutakoa aplikatuko da: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2105 Legea; Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartua); Dirulaguntzen azaroa-ren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

#### AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 11.

Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria,  
MÓNICA HERNANDO PORRES.